

Oinezkoak eta txirrindulariak babesteko saioa

Europako Batzordeak arrisku txikiagoko autoak ekoizteko eskatuko du

URTERO ERREPIDEAN MILAKA HERiotza gertatzen dira auto istripuek eraginda. Europan, 40.000 pertsonak galtzen dute bizia urtero errepidean. Ez behar horietan, ordea, maiz autoetan ez doazenak dira biktimak, hots, oinezkoak edo txirrindulariak. Izan ere, ezin da ahanzi oinezkoek eta txirrindulariek ez dutela inolako babesik, eta kolperen bat hartuz gero, min handia hartzeko arriskua dute. Zenbakiak ez dira gero txantxetakoak: urtero 7.000 oinezko eta 2.000 txirrindulari hiltzen dira ibilgailuek harrapatuta.

Datu horiek egoeraren larritasuna argi uzten dute, eta Europako Batzordea ere kezkatzen hasia da. Batzordearen arabera, autoen diseinua aldatuz gero, heriotza horien guztien %15 saihesta daitezke. Aldatu beharrekoa autoen aurrealdea izango litzateke, eta halaxe eskatuko du Europako Batzordeak Garraio Kontseiluan.

Istripuek eragiten dituzte heriotza gehien

40 urtetik beherako biztanleen artean trafiko istripuek eragiten dituzte heriotza gehien. Istripu gehien sortzen

dituzten arrazoiak, berriz, hauek dira: alkohola edan izana, araudia ez betetzea eta segurtasun gerrikoa ez jartzea. Hiru neurri horiek zainduz gero, istripua izateko arriskuak txikiagoak dira; gainera, autoaren diseinuak egokituko balira, oinezko edo txirrindulariren bat harrapatuta ere, hiltzeko arriskua txikiagoa litzateke. Hori da Europako Batzordearen iritzia, eta Europako auto ekoizleen aurrean defendatzen duena. Alabaina, auto etxeek besterik diote, Batzordeak eskatutakoa aurrera ateraz gero, autoen diseinuak garrantzia galduko bailuke —autoaren forma da hain zuzen egungo eroslearen motibazio handienetakoa—.

Baina azterketek erakutsi dute ez direla berberak auto deportibo batek edo furgoneta batek pertsona bat harrapatzerakoan eragiten dituzten zauriak. Autoaren aurrealdeak zeresan handia du norbait harrapatzean eragiten zaizkion zaurietan. Finean, autoaren *segurtasun pasiboa* deitu



DAVID AGUIOLAR / EFE

izan dena areagotu nahi da; hau da, auto barruan doazenak babesten saiatzen diren moduan, auto horrek berak eragin dezakeen zauritutakoari ere nolabaiteko *babesa* ematea eskatzen du EBk.

Istripueetan lehen baino jende gutxiago hiltzen da EBN

Heriotzak eragiten dituzten istripuek behera egin dute azken urteetan Europako Batasunean. 1991n 56.022 hildako izan ziren; 1998an, berriz, 42.553. Hala ere, kopurua ez da trafiko agintariak nahi duten bezain txikia. Izan ere, egunero 120 pertsona hiltzen dira auto istripuz, eta urtean

1.700.000 lagunek izaten dute zauriren bat.

Egun, argi esan daiteke autoa gidatzeak arrisku bizia sortzen duela —bai autoan doazenentzat eta bai inguruan gerta daitezkeenentzat—. Azken 25 urteetan trafikoak %175ean egin du gora, eta Europako Batasuneko auto kopurua 60 milioitik 170era igo da. Baina herrialde guztiak ez dira berdinak. Esaterako, Erresuma Batuan eta Suedian milioi bat biztanletik 61 eta 64 hiltzen dira istripuetan hurrenez hurren, eta Grezian eta Portugalen, berriz, 210 eta 254. Diferentzia handia da.

• Xabier Martin •



fordfocus



Ford-ek Trend 1.6 16v 100 zp.ko fordfocus bat eskaintzen dizu, aluminiozko aleazioko Zetec motorrekoa, eta honako hauek hornituta: 3/5 ate • Direkzio erraztua • Airbag-a gidariarentzat eta ondokoarentzat • Ixte zentralizatua urrutiko kontrolarekin • Kristal-jasogailu elektrikoak • Geldiarazle elektronikoa • Atzeko eserlekuaren bizkarra asimetrikoki eraisgarria • Pintura metalizatua • Audio ekipoa bolantean ezarritako agintearekin. Paregabea bere klasekoen artean, atzeko esekidura independentearekin (Blade Kontrola).

1.995.000 pta.
(Plan Prever barne)

BEZ, garraioa, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintzak 99-12-31 arte balio du.

AUTOMOVILES KONDIA
Otaola etorbidea, 22. EIBAR
Tel.: 943 207 650

AUTOMOVILES MUGARRI
Araba etorbidea, z/g. ARRASATE
Tel.: 943 790 744